

ttüpi-ttapa

1995eko azaroak 16 • 170. zenbakia

Elkarrizketa


Mikel ILLARREGI:

«UEMATik euskararen erabilera maila guzitan indartu nahi dugu»



NAFARROAKO MENDIALDEA

ARRISKU HAUNDIKO EREMUA



Polo Berria

Desberdina da,
bere kalidade, fidagarritasun,
kapazidade, segurtasun eta prezioarengatik.

1.295.000 Pta.

Polo Berria. Volkswagen-eko ttikiak xume izatearen haunditasuna erakusten du. Kanpotik eta barrendik, dotorea eta dinamikoa, egiazko Volkswagenak bezalaxe. Polo Berria maniobratzeko goxoa da, segurua eta barrendik lekutsua. Volkswagen bati dagokion fidagarritasuna, ekonomia, iraunkortasuna eta kalidade haundiko teknika frogatu ahal izanen duzu berekin.

BEZa, garraioa, matrikulatze zerga eta promozioa prezioan sartuak. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera bitarte.



Polo Berria

Volkswagenen kontzentratua

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759

D O N E Z T E B E



IRUNen...

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria Anaiak

- ▷ SANITARIOAK
- ▷ MANPARAK
- ▷ MOBLEAK
- ▷ ALFONBRAK
- ▷ BAINONTZIAK
- ▷ HIDROMASAIA
- ▷ TXORROTAK
- ▷ KORTINAK

ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA

GARRAIOA ETA INSTALAKUNTZA
BORTZIRIETARA EGUNERO ZERBITZUA

ERAKUSKETA
Juan Arana, 1

Tfnoa. (943) 611767 IRUN

BILTEGIAK
Juan Arana, 3

DATUAK

❖ *Leitzako alkate izateaz gain, UEMAKo (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) lehendakari izendatu berri dute Mikel Illarregi Gipuzkoako Lizartzan egin diren II. Ihar-dunaldietan.*

❖ *UEMA sartuak dauden 23 herrietatik 5 nafarrak dira. Leitzarekin batera, Arantza Goizueta, Urdiain eta Zubieta.*

❖ *Bi baldintza bete behar dira udal elkartean sartzeko; biztanleen %80a euskalduna izatea eta udaleko alderdiek borondate politiko eta soziala izatea UEMAREN proiektua bultzateko. Biztanlegoaren baldintza 110 herrik, betetzen dute.*

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
ANTON ERKIZIA

Mikel ILLARREGI:

«UEMATik euskararen erabilera maila guzitan indartu nahi dugu»

ZER DA UEMA?

Proiektu bat da, momentuz 23 herri sartuta dauden proiektua. Eta horrekin batera, euskararen normalizazioarako prozesuan UEMA erreferentzia bat ere bada. Orain arte hizkuntz plangintzak egiterakoan euskararen ezagupena bera izaten zen helburua eta hemendik aurrera, UEMATik euskararen erabilera indartu nahi dugu gure plangintzetan. Hain zuzen ere, euskararen ezagupena da herri hauetan dugun alderik indartsuena eta erabilera, ordea, jeitsi egiten da dextente batez ere herri haundietan. Hemendik aurrera, euskararen erabilera izanen da gure plangintzetako ardatza.

BADAGO ZEHAZTERIK ZERTAN ETA NOLA?

Alde batetik kaleko jendearen inplikazioa indartuz, eta bestetik, udal mailan aurretik jarriak ditugun helburuak epe jakin batean beteaz. Honetan sartzen da, adibidez, herritarrek administrazioarekin duen harremanean euskarari bide ematea; eskaera-orrien modeloak eskainiz, eta abar.

NOLA IKUSTEN DU-

» *Administrazioaren euskalduntzea dela eta, gure ustez Gobernuaren inplikazioa haundiagoa behar du izan eta espero dugu epe motz batean elkarrekin biltzea eta pausoak ematea*»



ZU ADMINISTRAZIOAREN EUSKALDUNTZE PROZESUA NAFARROAN?

UEMA bezala ez dugu harremanik izan Nafarroako Gobernuarekin. Iduritzen zait administrazio desberdinetan jende gutxi dagoela prestatua zentzu honetan, eta bestalde,

ez dakit ze asmo dagoen administrazioa euskalduntzeko Gobernuaren aldetik. Gure aldetik aspaldiko eskakizuna da eta beti kanpaina desberdinen inguruan funtzionatu da; osagileak, notarioak, e.a. Ez da gauza haundirik lortu. Dena den, gure ustez Gobernuaren inplikazioa haundiagoa behar du izan eta espero dugu epe motz batean elkarrekin biltzea eta pausoak ematen hasia.

LIZARTZAN EGIN BE-

RRI DITUZUEN IHARDUNALDIETAN ZEIN HELBURU MARKATU DITUZUE EPE MOTZEAN BETETZEKO?

Lehenik, herri bakoitzak bere baitan jarriak dituen helburuak aurrera eramatea, bigarrenik, UEMAREN proiektua 110 herriz osatutako multzo horretara zabaltzea, eta azkenik, euskararen normalizazio prozesu honetan, udalekin batera, alderdi politiko eta herri mugimenduak ere inplikatzeko.

«Nafarroan sute arriskurik haundiena Bidasoaldeko bazterrotan dago». Halaxe ageri da Mendi-sutei Buruz Nafarroan egin den lehenbiziko lkerketan. Ikerketa hau Foresna-Zurgaiaren izeneko elkarteak burutua du 'Compostela Foret' Europa mailako programaren laguntzarekin. Bertzalde, urte-saso hauxe da sute arriskurik altuenekoa urtearen barrenean. Gogoratu bertzenaz, 1989ko sute ikaragarri hura. Orduan 2.500 Hektarea baino gehiago kixkali ziren Arantza, Bera, Elgorriaga, Etxalar, Igantzi, Ituren, Lesaka eta Sunbillako mendietan. Geroztik ere, urtero heldu den oihan gaztea aunitzetan galdu egiten da suarengatik.

TESTUA :
 JOXEMANUEL IRIGOIEN
 ARGAZKIAK :
 LEGARRA ETA FORESNA-ZURGAIA

MENDIAN SU EMATEKO BAIMENA ESKATU BEHAR DA

baserriaren inguruan aldatu egin dira gauzak. Gaur egun familia gutiago bizi da baserrietan eta lehenengoekin konparatuz kopuruz ere urriagoak dira. Horrekin batera, iratzea ere ez da lehen hainbat egiten, sasiak gailendu egin dira orain dela urte guti arte larre garbia

zen xokoetan, eta ondorioz, lagun gutiagoren artean larre gehiago dago garbitzeko. Gauzak horrela, sua baimenik eskatu gabe ematen denean, sua biztu eta ihes egiten du jendeak salatua izatearen beldur. Bitartean, inork zaindu gabe, sua nahi duen lekuraino joaten da bere gisa, korritutako larre eta oihanetan kalteak eraginez. Azken finean, gauza jakina da suteek lurra antzutu eta


hondatu egiten dutela, gero euri erauntsiek eraman egiten dutela suak harrotutako lur mamia.

FORESNA-ZURGAIAREN EKIMENA

Nafarroa mailan sute arriskurik altuena duen eremua Bidasoaldea dela jakinik, ekimen berezia martxan jartzea erabaki zuen Foresna-Zurgaiaren Nafarroako Baso Elkarteak.

GOITIK BEHARA DAUDEN ARGAZKIETAN LESAKAKO SUHILTZAILE BOLONDRESAK AGERI DIRA PRAKTIKAK EGITEN. LESAKAN BEZALA, BERAN ETA LEITZAN ERE BADAUDE PROFESIONALAK EZ DIREN SUHILTZAILEEZ OSATUTAKO TALDEAK.

«Lehenbiziko lana, baserri eta mendi-bideak agertuko dituen kartografia egitea izan da» —dio Manu Arrastia, elkarte honetako arduradunak. Azken helburua, «bide guztiak modu egokian seinalez-tatzea da, suterren bat gertatzen denean suhiltzaileak galdu ez daitezzen». Momentu honetan, ordea,



kartografia lana egina dute, eta behinbetikoz bide-seinaleak jartzeko. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza noiz etorriko zain daude, guzira 800.000 pezeta inguru.

SUHILTZAILE BOLONDRESAK

Aipatuekimenen inguru honetan martxan jartzeko kontutan hartu duten bertze arrazoietako bat, Bera, Leitza eta Lesakan jada antolatuta dauden suhiltzaile taldeak izatea izan da. «*Talde hauek hiru sailetan antolatuta daude: batzuk oihaneko suteak arduratzen dira, besteak etxeetako suteak eta hirugarrenak ekipamendu eta tresneriari dagokion guziaz Azken finean, duten antolakuntzarengatik nabarmentzen dira*»—azaltzen du Manu Arrastiak. «*Jende hauek ez dute suhiltzaile izateagatik inolako diru-saririk eskuratzen, ekipamendu aldetik ere, suhiltzaile profesionalak zaharkituak egoteagatik baztertuta utzi dituzten materialez hornitzen dira gehienbetean, baina halere, maiztasunez praktikak egiten dituzte*».

Suhiltzaile Bolondresez osatutako talde hauen planteamendua, zera da; lehenbizikoak izatea sutearen lekura ailegatzen, eta Oronoz-Mugairitik edo Iruñeatik

suhiltzaile profesionalak ailegatu bitartean joaten den denbora horretan, sute handi bat izaten ahal dena ahalik eta ttikiena izatea azkenean.

URONTZI FINKOAK MENDIETAN BANATUAK

Kasu hauetan erabiltzen diren tresna eta makinaria guziaz gain lagungarri izanzen direlakoan, Foresna-Zurgaiak mendietan 8.000 litroko urontzi finkoak jarri zituen 1993an, «*zoritxarrez zortzi bakarrik*» Manu Arrastiak dioenez. Urontzi hauek poliesterez eta beira-zuntzaz eginak daude, eta adibidez tiro batek zulatuz gero, moldatzeko erraxak dira.

Elkarte honek suhiltzaileen esku jarritako bitartekoan artean, egurketarietara ditzuten edozein kamioietan muntatzen ahal den autobonba ekipoa dago. Zortzi mila litroko kapazidatea dauka eta Gipuzkoan zentzu honetan izan duten esperientzia segituz, egurketari enprekin elkarlanean ariz gauzatu da. «*Gure kasuan Lesakako Erkiziarekin akordioa egina dugu, —dio Manu Arrastiak— egurketariak baitira kasu hauetan txofer lana egiteko prestatuak. Sua itzaltzeko bere kamioia utziko digu, eta han muntatuko dugu autobonba ekipoa*». ■

«Praktikak hileroko egiten ditugu azkeneko larunbat atsaldetan, eta tartean, egiazko kasu asko ere»

ZENBAT JENDE ZAUDETE LEITZAKO SUHILTZAILEETAN?

Hamabost, denak herrikoak. Ni hirugarrena naiz zaharretan, eta besteak gazteagoak dira. Gero badira 17-18 urtekoak orain sartzen ari diren berriak eta gainera ilusio haundiarekin. Areso, Goizueta, Ezkürra, Eratsun eta Uitzirira joaten gara eta noizbait Berueteraino ere joan behar izan genuen Iruñekoak eta Mugairikoak ez zutela posible eta.

ZENBATERO EGITEN DITUZUE PRAKTIKAK ETA NOLAKOAK IZATEN DIRA?

Hileroko azkeneko larunbat atsaldetan, eta tartean, egiazko kasu asko ere suertatzen dira. Gaur bertan Goizuetara joan gara. Nolakoak izaten diren? Ba, inork ez dakigula, bat edo biren artean bazter batean su batzuk biztu, sirena jo eta zenbat denbora tardatu den kronometratzen



JOSE M.
HERNANDORENA

Leitzako Suhiltzailea

da. Bonbak errekan jarri, kamioiak bete, eta horrela... egiazkoa balitz bezala eta aurretik jakin gabe.

NOLA ZABILTZATE BALIABIDE EDO ERREKURTSO ALDETIK?

Boah, hori arrontzera izaten da. Eskariak egiten ditugu bainan ez dizkigute bidaltzen

eta sekulako pegak izaten ditugu dirulaguntzekin. Gaude arroparik gabe, botarik gabe, txaketarik gabe... eta ditugunak, denbora batekoak dira, gaur egun dagoen jendeak erabiltzeko ttikiegiak eta horrela, askotan bakoitzak bere gauzak erabili behar. Holaxe gaude, eskatu eta eskatu eta ea noizbait ematen dizkiguten. Mangerekin eta, nahiko poliki gaude, 25 metrokoak eta lantza batzuk falta ditugu baina gehien falta duguna arropa asuntua da. Gaez eskuargiak eta, bakoitzak bereak eraman behar izaten ditugu.



FORESNA-ZURGAIK ANTOLATUTA, BERA, LEITZA ETA LESAKAKO SUHILTZAILE BOLONDRESEK FRANTZIAKO MIMIZAN HERRIRAT (LANDAK, AKITANIA) EGIN ZUTEN BISITALDIA. HAN, SUTEEN KONTRA DARABILTEN ANTOLAKUNTZA EZAGUTU ZUTEN HURBILETIK.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
oi. **Publizitatea:** Miren Kar-
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
zetxea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizabarren, Ainhoa Mutuberria, Iban
Aizabarren, Txema Aldabe, Pello Etxe-
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-
bena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba
Aizabarren, Alizia Olaizola, Margari-
te Aizabarren, Koro Irazoki, Mixel
Aizabarren, Jacqueline, Elixabet
Aizabarren, Garbiñe Maiz, Oskar
Aizabarren, Alberto Sansiñena,
Pello Apezetxea, Aitor Arozena,
Kristina Boan.
kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
oa, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
a, Joxe Javier Etxeberria,
Arantxa Zabala...
primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapak ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
kuzunik.
arakunde Laguntzaileak: Bera,
Aizabarren, Goizueta, Areso, Baztan,
Aizabarren, Zugarramurdi eta
Aizabarren udalak, Bortzirietako
Aizabarren Mankomunitatea,
Aizabarren alerrekako Zerbitzu Mankomu-
nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Epaimahaikoak izendatu dituzte



EPAIMAHAIKOAK

*Zein da beren
eginbeharra?*

Datorren urtetik aitzinera, 2.250 nafarrek juizio ezberdinetan epaimahaiko kide bezala parte hartzen ahal dute.

Epaimahaia 9 kidek osatuko dute eta hauen lana epaia edo erabakia ematea izanen da. Sententzia, orde, epaileak emanen du. Orain aukeratuak izan direnak, 1996an juizio zehatz batean epaimahai-kide izateko aukeratuak izaten ahal dira, beste zozketa batean tokatu ezker.

Epaimahaikoak, bizitza eta ingurugiroaren kontrako delituetan, laguntza ez ematea, etxe batera indarrez sartzea, mehatxuak edo funtzionarioek beraien karguetan egindako delituen kontrako kasuetan arituko dira. Epaimahaiko kide izatea, eskubide bat izateaz gain betebeharrak ere bada. Honenbertez, lanera ez joateko aukera izanen du eta nolabait indemnitazioa ere jasoko du.

Epaimahaikide izatea nahitaezko betebeharrak bada ere, zenbait baldintzetan uko egiten ahal da. Bertzeak bertze, 65 urte baino gehiago izatea, familia arazoengatik nahaste handia sortzea, atzerrian bizitzea...

Martxan jarriko ote da legeak agintzen duen guzia?



Papax FAGOAGA
Udal idazkaria. Errotzu

Urtarrilaren 1etik aitzinera, biziaren eta in-

gurugiroaren aurkako delituak, laguntza ukatzea, etxean indarrez sartzea, mehatxuak eta funtzionario publikoek beren eginbeharretan egin ditzaketan delituak Herri Epaimahaiek epaituko dituzte dagozkien epaiak emanez. Epaimahaien Auzitegia osatzeko, Nafarroan adinez nagusiak diren artean zozketa egin da eta 2.250 pertsona aukeratu dira epaimahaikoak izateko. Epaiaketa bakoitzarentzat, zozketa berria egingen da hautagai hauen artean, 36 juratu edo epaimahaiko aukeratzeko. Epaiaketa, 36 herrietatik 9 izanen dira titularrak. Nere buruari egiten dizkiodan galderak hauek dira:

- Martxan jarriko ote da legeak agintzen duen guzi hau, kontuan harturik honek suposatzen duen diru kopuru handia?
- Aukeratuok, gaitasunik izanen dugu aipatu delituak epaitzeko, merexi duten argitasun, berdintasun eta justiziarekin?
- Ez dira epaietan desberdintasun handiak sortuko?

Orain gizakoiagoa izanen da justiziaren makinaria



Antonio ARTAZCOZ
Pelukeroa. Doneztebe

Nire ustez epaimahaikoak izendatzearekin

hobetu egingen da justiziaren egoera. Horretan ez dut zalantzarik. Aldaketa honek gizakoiagoa bihurtuko du justiziaren makinaria, hainbertze teknizismorik gabe emanen baita hemendik aurrera. Egia da epaimahaikoa izatea suertatu zaigunontzat ardura handia dela... hale-re, zorionez, Espainian ez dago heriotz zigorrik. Dena dela, estatu demokratiko batean bizi baldin bagara, onerako eta txarrerako, jendeak parte hartu beharra dauka. Azken batean, hauteskunde mahaian egotea tokatuko balitzaizu bezala gertatzen da honekin. Prestatuak ote gauden? Ez dut hori zalantzan jartzeko arrazoirik ikusten. Kontutan hartu behar dugu hau hasiera baino ez dela, eta gisa honetako esperientzia duten estatuetan, ageri denez, ongi funtzionatzen du sistema honek. Baditugu eskubideak bainan baita betebeharrak ere. Ikusiko da...



ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxo
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

BOTA BERTSOA

Zer egiten duzu feria egunean?

Xabier TERREROS
Neurria: Zortziko haundia



Feriak hurbil hurbil ditugu jarri ezazu arreta egun honetan herri guztiak izan ohi du aldaketa kaleak denda ta animaliz egoten dira beteta zu ere hara hurbildu zaitez pena merezi du eta.

Aiton-amonei lehengo feria etortzen zaie burura oraingo hauek ez omen dute lehengokoen itxura garai bateko feria hura behar dugu berreskura eta horrela ez da galduko gurea dugun ohitura.

Esperanto ikastaro trinkoa

Euskal Herriko Esperanto Elkarteak esperanto ikastaro trinkoa antolatu du. Inmaculada zubian, Abenduaren 6tik 10era Gasteizko "Carlos Abaitua" Aterpean. Ikastaro hori bi mailetan bereizten da, oinarrikoa, eta goi mailakoa. Prezioa, ostatu eta mantenua, ikasle edo lanik gabe daudenentzako 7.000 pezetakoa da eta lana daukatentzat 10.000 pezetakoa.

Salneurri hauek ulertzen dira lozakua ekarriz, izarak nahi dutenek 1.000 peze-ta gehiago ordaindu behar dute. Ostatu behar ez dutentzat, eguerdiko bazkaria soilik 4.500 pezeta ikasle eta langabetuentzat eta 8.000 pezeta lan egiten ari direnentzat. informazio gehiago telefono hauetan:

945. 22 45 50 (David)
948. 56 38 99 (Rafa)
94. 449 75 77 (Andi)

EUSKAL HERRIKO ESPERANTO
ELKARTEA



'Yanci' abizena dutenei

Nere ausardia barkatzea espero dut, baina aspaldidanik neukan zalantza bat argitu dut eta "Yanci" abi-

IRAKURLEAK MINTZO

zena duten guztiei azalpen txiki bat egin nahi diet.

Nere abizena betidanik "Yanci" bezala ezagutu nuen eta ez nekien nola euskeratu. Era pila batean ikusi dut idatzita, adibidez: lanzi, lantzi, lhantzi,... Azkenean zalantza argitzeko Euskaltzaindiara idatzi nuen eta bai abudo erantzuna eman ere. "Yanci" abizena euskaraz IGANTZI da, hau da, herria bezalaxe. Horregatik idaztera ausartu naiz, nere kasuan egon daitekeenari bere abizena

nola idatzi behar den argitzekeo.

LAURA IGANTZI MITXELENA
NAN: 33.438.675



San Miguel auzoa

San Miguel auzoa eta Doneztebeko Udalaren arteko polemikari buruz azkeneko TTPI-TTAPAN agertutakoarekin ez gaude ados. Argi eta garbi utzi nahi dugu, gu ez garela inolako aberia konpontzearen kontra agertu, ez baigenekien izan bazegoenik ere. Hori dela eta, aitzinetik abisorik hartu gabe, azken 15-20 egunotan ur-mozketak izan ditugu.

J.J. URTXULUTEGI
ETA BERTZE BATZUK


OHARRA:

*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*

TTIPI-TTAPAREN oharra:

Azkeneko alean Doneztebeko San Miguel auzoari buruz agertutako informazioaren edukia, Doneztebeko udalak urriaren 5eko udalbatzarrean hartutako aktan oinarritua dago oso osorik.

Hori horrela izanik, aldizkari honek ez du informazio horren nondik norakoein inolako zerikusirik, berez, aktak dioena bildu baitugu hitzez-hitz.



ZIKLO OSTATOA

LESAKA

PIKABEA
pinturak

Lehen Molinero
izandakoak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

**ZIZKA
OSTATUA**

**Martxa eta
mozkor saltsa**
Altzate 28 • **BERA**



Diario de Noticias 95-XI-10

«Bi guardia zibilak ikusi nituenean, nere bila heldu zirela pentsatu nuen. Atetik atera eta etxe ondoko belagira joan nintzen. Zubian horietako bat ikusi nuenean gelditu nintzen. Besotik hartu, bizkarka jarri ninduen eta sorbalda bustia nabaritu nuen. Gero konturatu nintzen tiroa zela»

Txema BALLARENA
Elizondoko intsumitua
Diario de Noticias 95-X-10

zaindu»
ZIA GAZTELU Ahizpak
Anizko zerri-hazleak
Egunkaria 95-XI-7

«Errespetuaren ideia hori hainbertzeraino sartu dute gure jendeen baitan, gehienetan euskaldunak direla lehenbizikoak erdaldun bat ikusi orduko euskara uzten».

Pello APEZETXEA
Etxalarko apeza.
Egunkaria 95-XI-2

«Zerriak mimatu egin behar dira, ongi

- ◆ **Zein kirol nahiago duzu, futbola ala pala?**
- ◆ Gaur egun horretan ari naiz eta futbola.
- ◆ **Historiako futbolista eta palista onenak?**
- ◆ Maradona eta Iturri.
- ◆ **Entrenatzeko, neskak ala mutilak?**
- ◆ Bizi guztian neskak entrenatu ditut, beraz, neskak.
- ◆ **Eta partidu bai ikusteko?**
- ◆ Partidua ona izanez gero, bai neskena baita mutikoena ere, polita da ikusteko.
- ◆ **Kirola non lantzen da gehiago, Bera ala Lesakan?**
- ◆ Berdintsu paratu, portzikaso.
- ◆ **Beti Gazte-Gure Txokoa derbirako pronostikoa?**
- ◆ Lesakakoen alde.
- ◆ **Zein da zure gustuko entrenatzailea?**
- ◆ Irureta, gainera pertsonalki ezagutzen dut eta jatorra da.
- ◆ **Epaimahaikide izatea ere egokitu zaizu. Jende arrunta hortan aritzea zer iruditzen zaizu?**
- ◆ Lege asuntotan ez nago prestatua eta gaizki iruditzen zait.
- ◆ **GAL aferan, errudun nor izendatuko zenuke?**
- ◆ Barrionuevo eta konpañia.
- ◆ **Ezkondu ala mutilzahar?**
- ◆ Amakin pozik bizi naiz oraindik.
- ◆ **Oraingo gaztedia ala zure garaikoa?**
- ◆ Oraingo gaztedia hobea iruditzen zait.



Joxeluis ALTUGARAI
Gure Txokoako nesken taldeko
Futbol entrenatzailea. Lesaka



GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA



ANSONEA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

AYLA ARGAZKINTZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Bidasoa 8
BERA ☎ 630075

Bera

Eskualdeko alkateekin bildu zen Iñaki Cabases

Bertze gauzen artean, industria eta turismoaren egoeraz solastu zen kontseilaria

KRISTINA BOAN

Iñaki Cabases, Nafarroako Gobernuako Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilaria inguruko zenbait alkateekin bildu zen urriaren 7an Berako Herriko Etxean. Alkaigako industrialdeaz solastu ondotik, lurra bilatzen hasteko erran zien kontseilariak bertze alkateei. Arantzako alkateak bere kezka plazaratu ondoren, inguruan paratzen ari diren haize parkeak ez dutela ingurugiro aldetik kalterik sortzen erantzun zuen Cabasesek.

Turismoari dagokionez, Bertizko Partzuergoaren egitura



moldatu beharra azpimarratu zuen kontseilariak. Bere ustez, inguru ederra da turismoarako, baina "imaginazioa landuz presatu behar da, dirurik ez baitago".

Iñaki Cabases, Nafarroako Gobernuako Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilariak inguruko egoera ekonomikoaz bertako alkateekin hitzegitera etorri zen Berara azaroaren 7an

Argazkia: Joxemanuel

Intsumitu preso guztiak askatzea eskatu du udalak

Edozein kartzeletan dauden intsumitu presoak berehala askatzea eskatu du udalak azken batzarrean, HB eta EAren aldeko botuekin eta Herrialderen abstentzioarekin.

Intsumitu eta konzientzia eragozleen senitartekoek aurkeztutako mozioan, intsumisioaren jarrera gazte guztiak segitu beharreko eredutzat har-

tzen zen. Herrialde eta Eakoak ez zeuden ados puntu honetan, "gazte bakoitzak bere kontzientziaren arabera aukeratu behar duela" erranez. Azken puntuan, berriz, Iruñean preso dauden intsumituak askatzea eskatzen zuten senideek eta HBk proposatuta eskari hori kartzela guzietara zabaltzea onartu zen.



Zalain-Berako koadrila da argazkian ageri dena, orain dela 37 urte bestak egiten zituena. Duela zenbait aste, orain Ameriketara bizi direnak etorri direla probetuz, afari batean elkartu ziren berriro ere guztiak.

ttipi-flash

Kotto Altzuguren

da HBko bigarren zinegotzia, azkeneko batzarrean 'legearen agiduz' zin egin ondoren. Bere ustez Konstituzioak bitan zatitzen du Euskal Herria. Kottok Josu Untsion preso politikoa ordezkatu du.

EPAIMAHAIKOAK

BERA

ALTZUGUREN ZELAIETA J. Carl.
ASTONDOA AMEZTOY Coro
ETXEBESTE IRIBARREN Esteban
FAGOAGA MARKINA J. Ramon
GONZALEZ BURGETE M^a Fatima
IRAOLA ROZAS Fermin
IZQUIERDO GALLANO Antonio
LOPEZ TOLOSA Jose Antonio
MINDEGIA GOIA Juan
PAJARES MARTIKORENA Merc.
RIVAS BOLLERO Juan Manuel
SORONDO ZAPIAIN Miguel
URDANIZ ETXEBERRIA Iñaki
ZELAIETA ERATSUN Jose Luis

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lesaka

Bortzirietako feriak, azaroaren 22 eta 23an ospatuko dira

Berrikuntza bezala, bertako produktuen eta artisau lanen erakusketa izanen da plazaren barnean

AITOR AROZENA

Azken urtetako egitarauari begiratuz, ez dute aldaketa handirik izanen aurtengo merkatu eta feria egunek. Hori bai, ortzegunean, bertako produktuen eta artisauak egindako lanen erakusketa ikusteko aukera izanen da seguraski, plazan bertan.

Asteazkenean, arratsaldeko betan haurren arteko pilota partiduak izanen dira eta ordu erdi beranduago ajoarriero lehiaketa. Musika ere izanen da.

Ortzeguneko feria egunean ohiko azienta feriarekin batera, Euskitze, Mendizabal eta Peñagarikano bertsolariak arituko dira. Arratsaldeko 5etan pilota partidoak izanen dira eta 7etan bertsolarien saio berri bat plazan. Bukatzeko, musika Belea Band taldearen eskutik izanen da.

Bertzalde, Senideek antolatutako enkartelada izanen da plazan goizeko 11etatik 3etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, presoak Euskal Herrira ekartzea eskatuz. 8etan plazatik atera eta buelta bat emanen dute herrian barna.



Patriziko Goienetxe eta Iñaki Fagoaga herriko preso politikoei elkartzuna adierazteko mendi martxa joan zen azaroaren 5ean Sastrinera. Bertan, presoek igorriko zaien argazki hau atera zen Argazkia: Edurne

Kultur Astea

Ferietako aste horretarako Kultur Astea ere antolatu du Euskara Batzordeak. Asteazkenean, haurrendako tailerra frontoian eta onddoei buruzko erakusketa Beti Gazten izanen dira. Ortzira-lean, pelikula emanaldia Arranon eta larunbatean diapositibak eta opera emanaldia Matxinbeltzanean.

Otsango auzoko Sorgintxulo baserria kixkalia agertu zen azaroaren 9ko goizaldean. Momentuan inor bizi ez bazen ere, bikote batek eskuratu berria zuen Nafarroako Gobernuak egindako enkantean. Bertara bildutakoen iritziz sutea nahita eragindakoa izan zen



ttipi-flash

❖ **Bortzirietako Euskaltegiak**


EGA ikastaroa (egunero eta larunbatetan) eta literatura ikastaroa, euskara sakondu nahi dutenentzat, antolatu ditu. Apuntatzeko deitu abudo 637796 telefonora.

❖ **79.596**

pezetako dirulaguntza jaso du Beti Gaztek 'Ezagutu Dezagun Lesaka' lehiaketaren VII. edizioa antolatzeko.

❖ **Intsumiso eta eragozleen senideek**

aurkeztutako mozioa ez zuen onartu udalak, PNV kontrako botoa eman baitzuen.

 **EPAIMAHAIKOAK LESAKA**

- ALTZUGARAI IANTZI Jose Luis
- AIESTARAN TAPIA M^a Carmen
- ETXEGARAI OIARTZABAL Marc
- FAGOAGA OIARTZABAL Gem.
- HIDALGO SANCHIDRIAN Marin.
- ITURRIA ELIZONDO M^a Isabel
- MATXIKOTE ALTZUGUREN M.
- MINDEGIA IRAZOKI Florencio
- ORUBE ELIZAGOIEN Marisa
- RODRIGUEZ IANTZI Juan Man.
- TELLETXEA TXOPERENA J. Javie
- ZABALOUZAZOLA ALUST. Mer

ONGI PASATU LESAKAKO FERIETAN

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEREAU
jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



ttipi-ttapa
6.100 harpidedun
21.000 irakurle

Ezin da etxebizitzak egiteko lurrik lortu

Gazteari zail zaio Etxalarren etxea eskuratzea

Etxalar

PELLO ETA ALBERTO

Etxe berri batzuk egiten ari zirela eta bertze zenbaiten proiektua bazela berriki erran baguenen ere, hori guti da herriko beharrak betetzeko. Aditu dugunez, etxebizitzaren bat, zaharra edo berria, eskuratu nahi, eta ezinean dabilta gazteak. Inork ez omen du saldu nahi, ez lurrik, ez etxerik. Ez dutela diru beharrak eta, ez dute saltzeko arrazoirik ikusten, omen. Kanpora joatea pentsatu beharko ote dute gazteek etxebizitza bila?.

Anbulantzia baserria ezin aurkituz

Baserrri izenak bide bazterretan paratzeko asmoak aspaldixkotik



baldin badira ere, bere beharra gero eta gehiago sumatzen da. Nor bera bere aldetik paratzen ari da batzuetan, eta ez beti sobe-

ra ongi. Bertzalde, gero eta beharrezkoago ikusten da, gero eta gehiago denez baserrietara etortzen den jendea; turismoagatik

Eskolako orduetan haur gutti ikusten da karrikan, eta ikusten dena lagunak ezin aurkituz ibiltzen da.

Argazkia: PELLO

Udalak lurra erostea erabaki du

Udalak karrika ondoan lurrik ez duela eta, mendian duenaren trukaketa bidez, ahal bada, hurbileko lurraren jabe egiten saiatzea onetsi du. Industriadako, alegia, norbaitek lan-tegiren bat eraiki nahi eta galdetzen badu, noiz edo noiz gertatu den bezala, industria kanpora joan beharrean aurki ez dadin.



EPAIMAHAIKOAK

ETXALAR

AGIRRE ITURRIA Juan Maria
DANBORIENA URTSUEGI J. M.
IRIGOIEN ZUBIETA M. Jesus
SANZBERRO IRISARRI M. Asun

ONGI PASATU-LESAKAKO FERIE TAN

Bada bertzerik baina ez hau bezalakorik!

EROSLE

BORTZIRI

© 63 72 64 • Bittiria, 67 • LESAKA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

Igantzi

Kultur Egunak heldu den asteen izanen dira

Larunbat honetan, berriz, rock kontzertua eta Udazkeneko Birako ekitaldia izanen ditugu

OSKAR TXOPERENA

Igantzi ezin izanen dugu erran hurrengo egunetan kultur ekitaldirik ez dagoenik, bete beteak baititugu heldu zaizkigun bi aste hondarrak. Hasteko, Kollins Clownen 'Bikingoak' ekitaldia ikusi ahal izanen dute haurrek azaroaren 18an, arratseko 9etan (ez du ordurik egokiena ematen baina...). Ordu terdi beranduago Biltoki Ttikikoeak antolatutako rock kontzertua izanen da, *Nahitanahiez*, *Larrua truk* eta *Ehun Kilo* taldeekin. Hurrengo astera pasatuz, hau da, azaroaren 24ean herriko erakunde ezberdinek antolatutako Kultur Egunak hasiko dira, Cofesekoen bi hitzaldirekin. Bata,



Auskalo taldea aurtengo kultur egunetan ere egonen da. Iazko tailerretan haurrek ederki pasatu zutenek, oraingoan bertze zenbait jokurekin berriro ekartzea erabaki dute antolatzaileek Argazkia: OSKAR

3,30etan jende helduari eskainia eta bertze 7etan gazteei zuzendua batez ere. Larunbatean, haurrentzat tailerrak prestatzen dituen Auskalo taldea izanen

dugu 4etatik aitzinera eta arratseko 9etan berriz, Landarbaso abesbatzaren kontzertua elizan. Akautzeko, igande osoan eskulan eta laboreen erakus-

keta izanen da, 12etan pilota partiduak, 7etan Koldo Ameztoi ipuin kontalariaren saioa eta 8etan Biltokin gaztain jatea bertsolari eta txiste kontalariarekin.

Lehortea

Lehortea haundia izanik ere, ematen du edateko urari dago-kionez herrian bertan gauzak aunitz zuzendu direla depositotik behiti heldu den tuboa moldatu zenez gozotik. Aurten ez da ia mozketarik izan eta orain bertan, Ankulutsako bonba bi egunetik ordu batzutan bertzerik ez omen da erabiltzen.

Tenis pistaren erabilera

Hemendik aitzinera herriko tenis pista erabili nahi duenak Kruzito albintearengana joan beharko du eskatzera. Orduko 200 pezeta ordaindu beharko dira eta argia erabiliz gero, berriz, 600.



EPAIMAHAIKOAK

IGANTZI

ARBURUA ETXEBERRIA Juan M^o
IGUZZIAGIRRE ITURBIDE Juncal
STEMBERT RIVILLA M^o Pilar

KIROMASAIA

Iñaki Razquin

KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA

Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortziralerara 16.00tik 20.00ra
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA



24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



Arantza

Bertsolaritza ikastaroa Bortzirietako haurrentzat

Hirugarren mailatik zortzigarren maila arteko neska-mutikoei zuzendu zaie

GARBIÑE ETA ELIXABET

Hirugarren mailatik zortzigarren maila bitartean dauden neska-mutilei bertsolaritza ikastaroa egiteko aukera eman die Bortzirietako Bertso Eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzaz. Taldetxoa osatuz gero, ikastaroa norberaren herrian bertan izanen litzateke. Ikastaroak bi edo hiru hilabete iraunen du eta ordua, lekua eta eguna apuntatzen diren artean erabakiko da.

Irakaslea Bortzirietako Bertso Eskolakoa izanen da eta parte hartzeagatik ez da deus ordaindu behar izanen. Interesatua egonez gero, azaroaren 24a baino lehen izena eman



Bertsolaritzan trebatzeko aukera emanen du Bortzirietako bertso eskolak Euskara Mankomunitatearen laguntzaz

behar zaio norberaren ikastetxeko irakasleei edo 634125 telefono-ra deitu.

Iratzelaien hitzarmena

Iratzelaien hitzar-

menari buruzko gaurkotutako planoak Herriko Etxean hamabortz egunez jendarean egonen dira, interesatuak ikus ditzaten eta egoki iruditzen

zaizkien erreklamazioak egiteko. Horretarako aukera azaroaren 13tik 24a arte, goizeko 8,30etatik 9,30etara izanen da udal bulegoetan.

ttipi-flash

Ingeles ikastaroa

Guraso elkartearen laguntzaz eskolan ingeles klaseak emanen ditu M^o Jose Arburuak. Dagoneko hogeitau lagun apuntatu dira eta oraindik izena eman nahi duenak aukera du eskolara joanez gero.

Gasaren instalazioak

zirela eta, tuberiak lur azpian sartzen ari dira. Gas naturala paratzeko 133 eskaera aurkeztu dira herrian.

Beheko-errota

ondoko presan arraiztatutako eskala bat jarriko dute.

EPAIMAHAIKOAK

ARANTZA
ERRANDONEA ALTZURI Marian.
LEITZA MITXELENA Jesus Maria
TARAZONA LARRETXEIA Julian



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Maiztoa
Zahar antzeko Txapeotua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ALBERGIA JATETXEA

© 634179
ARANTZA

LOZOTEGI - JAKO
LEKUZ ALDATU GARA ORAIN..

Altzate, 19 • 630786 • BERA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735
Irun © (943) 622305

Sunbilla

Moldatze eta berritze lanak egiten ari dira hainbat lekutan

Futbol-sala txapelketan izena emateko epea, bertzalde, azaroare 30a arte zabalik egonen da

IXABEL ETA JOSUNE

Karrika Nagusiko lanak aurrera doaz eta badirudi laister hasiko direla espaloiak egiten, uraren, telefonoaren eta argiaren tuboak lurperatu baitituzte. Halere, azken egun hauetan, gasa sartzeko asmoa ere badagoela aditu dugu.

Ez dira, ordea, egiten ari diren lan bakarrik. Orain dela bi urte uhalde aldera eroritako errepede zatiaren lurra ateratu dute, bi aldetatik pareta egin, baserri batzuetara ura eramanez eta, ezinezkoa zirudiena, hainbertze kostatu den uhaldearen zola karrakatzea ere egin da. Bertzalde, herri sarrerako errotondan atsedengune po-



lita egiten ari dira, mahai, eserleku...

Bukatzeke, herria arras ongi uzteko, Errekalde karrika parean, labadero zaharren tokian bertze atsedengune bat egiteko dago, aparkaleku eta guzi. Lanak bukatzean, herria ez dugu ezagutu ere eginen.

Futbol-sala txapelketan apuntatzeko epea zabalik

Datorren urteko urtarrean hasiera emanen zaio III. Aro Futbol txapelketari. Urtero bezala Sunbillako frontoian jokatu da liga modalitatean. Bertan parte hartu nahi dutenek, azaroaren 30a ar-

teko epea izanen dute izena emateko. Apuntatzeko edo informazio gehiago jasotzeko telefono hauetara deitu behar da: 45 1664-450154 (Mikel); 450371 (Enrike) edo 450459 (Juanjo).

Langarra taldeak antolatutako Euskararen Egunean eskulangile aunitz agertu zen



EPAIMAHAIKOAK

SUNBILLA

ALMANDOZ OTXANDORENA

M^a Soledad

GANBOA ALDABE M^a Luisa

MARIEZKURRENA LARRALDE

M^a Dolores

ONGI PASATU DONEZTEBEKO FERIE TAN



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater Konbinatuak



TELLETXEA

MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • © 45 02 58 • DONEZTEBE

Doneztebe

Hotzarekin batera zine denboraldia hasi da

Udazkeneko feriak ortziral honetan ospatuko dira eta Amaia Zubiria izanen da kantari

TXEMA ALDABE

Azaroaren 4ean hasi ziren berriro ere pelikula emanaldiak Doneztebeko zinean. martxoaren 31n akituko da denboraldi hau. Iazko ordutegi eta emanaldi berdinak izanen dira, hau da, larunbatetan gaueko 10,30etan eta igandetan 5etan eta 8etan. Pelikula ikusteko sarreraren prezioa 450 pezetara igo da.

Iazko langile berek segituko dute lanean lehiatiltan, atezain eta operadore gisa, kontratua luzatu egin baitiete. Azkeneko ple-noan, ordea, gai honi buruzko eztabaidan luzapen hau ez dela zuzena adierazi zuen idazkariak, lan hauen deialdia eta aukeraketa frogak egin behar direlako.

❖ **Feriak** izanen dira azaroaren 17an. Karrikak saltzailez beteko dira. Arratseko 8etan Amaia Zubiriaren kantaldia Bordatxon.



Eskolaurreko lehen eta bigarren mailako hurrek ipuinak kontatzeko aukera izanen dute liburutegiko Ipuin Orduan Artxiboa

Ihizturi elkarteko lehendakariaren dimisioa ez zuten onartu bazkideek

Ihizturi elkartearen lehendakaria den Rafael Isasik bere dimisioa aurkeztu zuen urriaren 28an. Zenbait ihizturiaren artean arazoak sortu ziren, haien us-tez kanpoan bizi direnek, nahiz eta Donezteben zuzeneko zergak ordaindu, ez zuten zila bertako kotoan ego-

teko. Ihizturiaren estatuak kontuan hartuz, hau ez da horrela eta arestian aipatutako pertsona horiek esku-bidea dute ihizean ibiltzeko. Urriaren 28an egindako bilkura honen alde agertu ziren, 5 abstentzio eta 4 kontra. Doneztebeko el-

kartearen 116 ihizturi daude.

Bertalde, urriaren 26an, hemengo ihizturi-riek Kaxerna mendian zuloak eginen dituzte, hilteltz edo otsail aldera pinu eta haritz amerikanoak landatu ahal izateko. Abenduaren 3an, berriz, Askin mendian arituko dira.

ttipi-flash

❖ **Ebasketak** ugaritzen ari dira, batez ere asteburuetan. Hainbat lekutan sartu dira, dirua, materiala eta kotxeetako musika-irradi aparailuak ebatsiz.

❖ **Ipuin Ordua** Pasa den ikasturtean izan zuen arrakasta ikusirik jarraipena emanen zaio aurten liburutegiak antolatzen duen Ipuin orduari. Asteazkenetan eta hamabortzetik behin eskolaurreko 1. eta 2. mailako hurrek ipuinekin gozatzeko aukera izanen dute. Azaroaren 15ean hasiko da eta inaugurazio moduan Langarra Tikiko partaide batzuk antzerki saio bat eginen dute. Ipuinak kontatu nahi izanez gero deitu 451712 telefonora.



EPAIMAHAIKOAK

- DONEZTEBE**
 ARTAZCOZ GOÑI Antonio
 GAGO AGESTA Isidora Marta
 LABRADOR DEZA M^a Felisa
 OSTIZ IRIBARREN Elvira
 TELLETXE RAMOS Alfredo

ONGI PASATU DONEZTEBEKO FERIAN

**FUNERARIA ZERBITZUAK
 DONEZTEBEN**



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
 Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Jose Luis San Miguel Tailerra

STIHL zerbitzu ofiziala

Merkatarien k., 11 • © 450711
 DONEZTEBE



023 - 029 edo 044
 motozerrak erosteagatik
 akzesorio MALETINA *
 DOHAINIK!

* Ordezko katea, guante pare bat, kateendako olio litro bat, 2 lima, portalima 1, bujia 1 eta 5 litroko bidoia



Haurrendako lehiaketak burutuko dira Langarra Ttikiren eskutik

Lanak abenduaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira Doneztebeko liburutegian

TXEMA ALDABE

Doneztebeko gaztetto batzuen iniziatibaz ipuin, bertso, marrazki eta txiste lehiaketa antolatu da eta horretarako beuren taldeari Langarra Ttiki izena paratu diote.

Hiru mailetan sailkatu dute lehiaketa, beti ere haurren adina kontutan hartuz, bata 8-9 urtekoendako, bigarren maila 10-11 urtekoendako eta azkenik, 12, 13 eta 14 urtekoendako.

Malerrekako eskoletako edozeinek parte hartzen ahal du eta lanak abenduaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira Doneztebeko liburutegian. Abenduaren 29an banatuko dira sariak.



Hogei emakumek parte hartu dute pala txapelketan

Emakumezkoen paleta txapelketa ospatu zen Donezteben urriaren zehar eta finalak urriaren 31n izan ziren. Baztan-Malerrekako bederatzi bikote eta Lesakako bat

aritu ziren, denetara hogei emakume. Txapelkunak Lesakako Begoña eta Igantziko Beatriz izan ziren, bigarrenak Almandozko Maritxu eta Estitxu Pierola, hirugarrenak

Almandozko M^a Luisa eta Sabina eta laugarrenak Irurritako Lorentxi eta Doneztebeko Ana. Gogo handia erakutsi zuten guzkiek eta finalerara jende franko hurbildu zen.

Gimnasioa zabalduko da laister Iturengo kapera egon zenekoan

Nafarroako Gobernuaren oneritziaren esperoan daude

TTIPI-TTAPA

Iturengo kapera egon zen lekuan haurrendako gimnasioa zabalduko da laister. 15.800.000 pezetako aurrekontua izan duten lanak akitzeko puntuan daude eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza, Kultura, Gaztedi eta Kirol sailaren oneritzi bakarrik falta da zabaltzeko. Izan ere, sail honek 14 milioiko subentzioa

(aurrekontuaren %80) eman du lanok egiteko.

Mendi bideak

Ez dira horiek akitzeko puntuan dauden lan bakarrak. Amezitia eta Mendaur alderako pistak moldatu berriak dira eta karrikak harrotu dituen ura eta saneamendu lanak ere ia akituak daude. Aipatu, bertalalde, Aurtiz auzoko bestak asteburu honetan izan direla.



Itxuraldaketa ederra izan du kapera zegoen lekuak eta haurren jostaleku izanen da laister

ttipi-flash

- ❖ **Kinto bazkaria** izanen dute Baztan-Bidasoako 1937an jaiotakoak Almandozko Beola jate-txean azaroaren 25ean, larunbata. bazkaria eguerdiko 2etan izanen da eta emakumezko zein gizasemeak joaten ahal dira. Apuntatzeko azaroaren 22a da azken eguna eta Beolako 580002 telefono deitu behar da izena emateko.
- ❖ **Langarra** euskara taldeak sozioak behar ditu. Bazkide izan nahi duenak aski du 451746 telefonora deitzea.

EPAIMAHAIKOAK

BERTIZARANA

ETXEPARE IRISARRI Jose Maria
LOPEZ DOMINGUEZ Jacobo
ZARRANZ IRABUENA Jose

DONAMARIA

ITURRIA URTIZBEREA Juan Carl.
ELGORRIAGA

TELLETXEA MUTUBERRIA M^a L.
ERATSUN

MURGIA BENGOTXEA Maria
EZKURRA

ARANBURU OLAIZOLA Lino
ITUREN

BEREAU IRAZABAL M^a Consuelo
MINDEGIA ERATSUN Martin Fco.

LABAIEN

ALDAIA OTXANDORENA Fca.
TELLETXEA ERATSUN Pedro

OITZ

OTEIZA LIZASOAIN Andres
SALDIAS

ERATSUN ETXEKOLONEA Tere
URROTZ

ALDABE MITXEO Jose

ZUBIETA

ERATSUN TELLETXEA Joakin
SANTESTEBAN MUT. Melchora

Francisco Javier Bertizek segituko du Beintza-Labaiengo alkatetzan

Herriko Taldeko Francisco Javier Bertizek segituko du Beintza-Labaiengo alkate bezala azaroaren 5ean burututako udal hauteskundeetan ondoren.

Duela lau urte baino askoz partehartze haundiagoa izan zen, 260 lagunek zentzotik, 174k eman baitzuten botua (1991. urtean bakarrik 90ek

eman zuten). Horieta-tik 118 Herriko Taldeari eman zioten konfidantza eta, beraz, bortz zinegotzi izanen ditu legealdi honetan. Miguel Etxeberria al-

kategai aurkezten zuen Harri-Txuria taldeak 53 botu jaso zituen eta bi zinegotzi izanen ditu. Botu bat txurian eta bi baliogabeak izan ziren.



Lotzabian ingurua oihanberritzeko 8,2 milioiko aurrekontua

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Lurraldearen garapenerako kontseilariaren Javier Etxartek Beintza-Labaiengo Lotzabian ingurua oihanberritzeko 8,2 milioi pezeta aurrekontua duen proiektua onartu du. Proiektuaren arabera, 11 hektarea garbitu ondoren, 12.000 haritz eta 300 lizar landatuko dira, harrizko iturria egingen da eta 3.400 metroko zerrak jarriko dira, lau pasabidez hornitua. 'Nafarroako Mendeak' izeneko Iruñeko enpresak egingen ditu lanak.

Donamariako eskulangintza ikastaroak 17 lagun biltzen ditu

TTIPI-TTAPA

Donamarian burutzen ari den helduendako eskulangintza ikastaroan hamasei-hamazazpi lagun biltzen dira astean bi egunez. Asteazken eta ortzegunetan izaten dute klasea eta irakaslea Irurritako Puy Urtasun da.

Pentsio Planak

DESGRABATU eta

ETORKIZUNA SEGURTATU

Caja

Rural arekin

Etorkizuna gero eta ezegonkorragoa da. Nafarroako Caja Rural-ek bere Pentsio eta Jubilazio Plana eskaintzen dizu ETORKIZUNA SEGURTATU

dezazun. Gainera desgrabazio garrantzitsua lortuko duzu zure Errenta Aitorpenean. Etor zaitez Caja Rural-era. Etorkizun ziurragoa izanen duzu.



CAJA RURAL DE NAVARRA

Goizueta

Orain ehun urteko udal ordenantzak euskaraz idatziak

Herriko Etxeko liburu zaharren artean agertu dira balore historiko eta sinboliko haundia duten paper horiek

ESTEBAN AROZENA

Azken aste hauetan udalak aurrera darman artxibo berritze edo eratze lanak direla eta, interes handiko dokumentu eta paperak agertzen ari dira Herriko Etxeko armairu zaharretan.

Hauetako bakarren bat azpimarratzekotan, 1897. urtean udalak onartutako ordenantzak aukeratuko genituzke, baina ez bakarrik garai hartako arauak oraingoeekin konparatzeak izan dezakeen interesarengatik, euskaraz idatziak daudelako baizik. Adituek diotenez, arrunt arraroa omen da



Azkeneko urteetan bezala, eskulangintza ikastarorako bakarrik lortu da jende koadrila elkartzea

Artxiboa

gure hizkuntzan idatzitako garai hartako dokumentu ofizial bat aurkitzea. Horregatik, balore historiko eta sinboliko haundia ematen

diote hemen aurkitutako honi.

Mus txapelketa

Egin egunkariak urtero antolatzen duen mus txapelketa nazio-

nalaren Goizuetako kanporaketa hurrengo larunbatean jokatuko da Umore-Ona elkartean gaueko 12etatik aurrera.

Egur-loteak

Udalak kaleratu berri duen bando batek dioenez, egur-loteak eskatzeko epea azaroaren azkeneko egunean bukatzen da. Interea dutenek izena Herriko Etxean eman beharko dute bulego orduetan.

Helduentzako eskulan ikastaroa

Azken urteotako antzera, 'Formacion Ocupacional' delako helduentzako kanpaina herrian osatu ahal izan den ikastaro bakarra eskulanetakoa izan da. Rosa Begiristainen gidaritzapean adin guztietako hamasei emakumek osatzen dute taldea.

Areso

Iazko usoen erdia bakarrik bota dute ehiztariak

Sokatira taldea hasi da entrenatzen

JUANA M^a SAIZAR

Udazkeneko giro gozoak bukatzeaz daudela ematen du, hegoaizea joan zaigu eta berearekin ehiza garaia ere. Ez daude oso gustora gure ehiztariak, aurtengo denboraldiarekin. Nahiz eta uso dexente bota orokorrean, iazko urtearekin konparatuz gero erdiak izan omen dira aurten botatakoak.



Astean behin egiten dute bere saioa dantza taldekoek

ttipi-flash

❖ Sokatira taldea

hasia da entrenamenduekin. Urtarrilean burutuko den Nafarroako txapelketarako prestatzen ari dira eta pisu guztietan parte hartze-kointentzia dute.

❖ Dantza taldea

ere prestatzen hasi da, astean behin burutzen dituzte ordu t'erdiko dantza saioak.

❖ Alfabetatze

ikastaroa euskara teknikariaren bisitaren ondorioz atara zela esan genuen. Ezin ahaztu, ordea, Leitzako euskaltegiak egingadako lana.

Leitza

Udalak industrialdearen gaia gogor hartu du

Aurrerapausu bat emateko lur eremu guztiak erostea erabaki da eta horretarako jabeekin bilduko da

JOSEBA AZPIROZ

HBren udal taldeak industrialdearen inguruko proposamen zehatz batzuk egin zizkion udalari eta onartuak izan ziren. Oraindik ere zehaztu gabe puntu franko gelditzen badira ere, badirudi behingoz industrialdea martxan jarriko dela. Nahiz eta zama ekonomiko dexentea izan, gaia aurrera ateratzeko terreno guztiak erostea erabaki da eta horretarako jabeekin bilduko dira. Oraingo beharrezkoak diren urbanizazio obrak eginen dira bakarrik: "Kale Nagusiko" ur hornidura, saneamendua eta euriurak jasoko dituztenak. Atzekaldekoa, mendi aldekoa alegia, aurrerago eginen da, beharren arabera.

Erosteko eskararak egin dituztenekin bildu beharrak ziren, eskatutako partzelak erosteko asmoa mantentzen bazuten, kontratua sinatzeko. Sinatzerakoan hartzen duten lur eremua ordaindu beharko dute eta urbanizazio gastuak, berriz, egiten diren neurrian.



Oraindik ere zehaztu gabe puntu franko gelditzen badira ere, badirudi behingoz industrialdea martxan jarriko dela. Momentuz, terrenoak erosiko dira laister

Argazkia: Joseba

Herri liburutegia azaroaren 13an ireki zuten berrikuntzak egin ondoren

Berrikuntza lanak zirela eta, denboraldi luze batez itxita egon ondoren, herri liburutegia berriz ere zabaldu zen azaroaren 13an. Liburutegia arratsaldetan irekiko da aste-gunez, 4,30etatik 8,30etara. Hilabetero, lehendabiziko bi larunbatetan 10etatik ordu bietara zabalduko ditu bere ateak, abenduan ezik (Abenduan 16 eta 23an irekiko baita. Aste guzian zehar Eskola eta Lanbide

Heziketa Institutuko ikasleak bisitak eginen dituzte eskola orduetan liburutegia ezagutzeko (gaiak, sailkapenak, fitxeroak, etab...).

Datorren ostiralean, azaroak 17, goizeko 12,30etan liburutegi berrituaren inaugurazio ekitaldi ofiziala burutuko da. Egun horretan, arratsaldeko 4,30etan, Pello Añorga kontulariaren emaldia izanen da umeentzat.

Zinemako tabernaren erabilera

Udal zinema laister ireki behar dela eta, bertako tabernaren erabilera hartu nahi dutenentzat izena emateko epea azaroaren 21ean bukatuko dela jakinarazi du udalak. Gogorazi behar da ez dela dirurik kobratzen, baina hartzen dutenek jabetu behar izaten direla zinemaren garbiketaz. Eskaera bat baino gehiago aurkezten bada, taberna zozketa bidez esleituko da.

ttipi-flash

7 Eskale

taldearen kontzertua izanen da azaroaren 24ean, ostirala, gaueko 10,30etatik aurrera Zinemaren. Euskara Zerbitzuak antolatu du.

Aziendarik

daukatenek katastroa udaletxeko bulegoetan bete beharko dute azaroaren 30a baino lehen.



EPAIMAHAIKOAK

ARANO

ANTSA UITZI Roque

ARESO

ARRAIGO HERNAND. M^a Pilar
SANTESTEBAN ELIZALDE Teresa

GOIZUETA

ETXEGIA LOIARTE Fco. Javier
MIRANDA SILANES Enrique
TOMASENA APEZETXEA Milagro
UITZI LUJANBIO Marrin

LEITZA

AGIRRE ZESTAU Miguel Maria
ARANGOA SATRUSTEGI Fco.
ASTIZ GURUZEAGA Micaela
BENGOETXEA GAMIOTEA Ven.
CORTES REBOLLO Petra
GARMENDIA URRETBIZK. Mic.
IPARRAGIRRE PERURENA Inigo
LAZKANO BILLABONA Salima
MUGIKA ALTSUA Bakarrxo
PERURENA CABALLERO J. Ram.
SAGASTIB. ZABALETA Miguel Jos
URANGA ARANBERRI M^a Pilar
ZABALETA LASARTE Jesus M^a



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapak** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko tokia eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

© 63 11 88

Baztan

Txema Ballarena zauritu zuen guardiazibila epaitu zuten Iruñean

Baztandik auto karabana joan zen epaitegira bigarren graduan dagoen intsumituari elkartasuna adieraztera

JOSEBA IGARABIDE

Joan den inñauterietan intsumiso izateagatik Txema Ballarena atxilotu zutenean tiroa jaso zuen sorbaldan. Ballarenak salaketa aurkeztu zuen eta epaitegira eraman zuen zauritu zuen guardiazibila. Azaroaren 9an egindako epaiketa 'epaiaren zain' gelditu zen. Baztandik auto karabana joan zen Iruñeako epaitegira eta Lekarozko institutuan eta Elizondoko Lanbide eskolan geldialdia izan zuten.

Zabortegea

Bergarako zabortegearen egoera salatu dute 59 auzokidek. Ardiak barnean sartzen dira eta errekarra isurtzen omen du. Zabortegea lehenbailehen ixtea eskatu diote Balleko Etxeari.



Flaco Jimenezek adin guztietako 2.200 pertsonekin bete zuen Elizondoko pilotalekua Dominesaindu bezperan egindako kontzertuan

23,7 milioi zenbait eremu oihanberritzeko

Burrartea, Itzulegi-Mas eta Munoa inguruak oihanberritzeko 23,7 milioi pezetako aurrekontua onartu du Nafarroako Gobernuak. Burrarteko proiektuan 6.795.381 pezeta inbertituko di-

ra eta 12,9 Hektareatan 12.000 haritz, 4.500 pago, 700 gereziando eta 200 pinu landatuko dira. Itzulegi-Mas inguruko proiektuak 8.564.363 pezetako aurrekontua du eta 18 Ha.tan 20.000 haritz,

4.000 pago eta 2.500 pago landatzea aurrikusi da. Munoako proiektuan, azkenik, 5 Ha.tan 11.000 haritz eta zenbait urki landatuko dira. Garbiketa eta zerrakurak egitea ere sartua dago prezioan.

ttipi-flash

- ❖ **2.008.917** pezetako kuota ordaindu dio Baztango udalak Bertizko Konsortzioari, aurtengo kuotari dago-kiona.
- ❖ **Izpegiko gainean** zegoen aduana etxea udalak eskuratu du, lur eremua berea baita.
- ❖ **Baztan errekarren** zola karrakatzea Bozate inguruan eskatu dio udalak Nafarroako Gobernuaren Herri-lan Zerbitzuari. UPNk egin zuen eskaria, errekar maiz gainezka egiten duelako Jaurena I eta II etxetan.



Javier Igoa, irabazi zuen lana margotzen

D. Noticias

Javier Igoak irabazi zuen Erratzuko margo lehiaketa

Javier Igoa lesakarrak irabazi du Erratzuko Etxelebertzeko Txokoa elkarteak antolatutako margo lehiaketaren hirugarren edizioa. Guztira 13 margolarik parte hartu zuten eta 16 margolan aurkeztu zituzten. 50.000 pezetako

lehen saria Igoarentzat izan bazen, bigarrena (30.000 pezeta) Hernaniko Mari Paz Uzkiak eskuratu zuen.

Gaiak aukeratzeko orduan ez zen originaltasun haundirik izan, zortzik, horien artean irabazleak, Erratzuko eliza auke-

ratu baitzuten.

Honenbertzez, Erratzuko elkarteak antolatutako kultur ekitaldiak bukatzeko puntuan daude. Hala ere, larunbat honetan, azaroak 18, bertso afaria izanen da, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsolariekin.

M^{re} Dolores Miñana
TOPOGRAFA
NEURKETAK • PLANOAK
Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143
ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería
calefacción
GA

Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTANO

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO


JATETXEA
☎ 580297
Pedro Axular
ELIZONDO
Santxotena

Belateko tunelatik pasatzeko bidesaria ordaindu beharra ez dago baztertua

Horrela izatekotan, zenbateko diru-kopurua izanen den ez da oraindik zehaztu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak ez du bartertu Belateko tunelatik pasatzeagatik bidesariren bat kobratu behar izatea. Florentino Lopez Isturiz, Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuko sailburuak adierazi duenez, «diru iturri publikoetatik aparte, finantziabide berriak bilatu beharra dago, eta zentzu horretan dauden aukerak ugariak dira. Bidesariak, zergak, kontsesio baten trukean enpresa pribaturen baten eman dezakeena...»



Musika Eskolako kuota onartu ditu Udalak

Musika eskolak 1995-96 ikasturtean izanen dituen tasak onartu ditu Balleko Udalak.

Solfeoan, hasierako kurtsoak 3. hilabetez 2.400 pezeta eta 4. tik 5. ra, 3.600 pezeta. Kantuan, 1. eta 2. kurtsoan hilabetez 1.200 pezeta. Musika tresnetan hasierako kurtsoak (tronpeta, saxoa eta klarineta, hasieratik 3. ra, bibolina

eta pianoa hasieratik 4. ra eta akordioa 1. kurtsozko prestaketa) 2.400 pezeta eta erdiko graduak (armonia 1. kurtsoa, piano 5^a, klarineta 4^a eta akordioa 2^a) 3.600 pezeta. 1. mailako familia ugarikoa izanez gero, erdia ordaindu behar da eta 2. mailakoa edo ohorezkoa izanez gero, ez da izen emate gastuak bertzerik ordaindu behar.

Irurritako Aranabia elkarteak antolatutako III. pala motzeko txapelketa burutzen ari da. Zortzi bikotek eman dute izena eta azaroaren 18a arte ligaxka jokatuko dute. Gero finalerdiak eta finala izanen dira.

Euskara betiko mintzoa

Izenburu horrekin erakusketa bat zabalik egonen da azaroaren 16tik 26ra Elizondoko Arizkunenean. Euskarari buruz, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak prestatu duen hirugarren erakusketa orokorra da, guztiak helburu berekin: euskara guzian ondarea dela aditzera ematea eta hizkuntzak jendea batzeko duen ahalmena erakustea.

ttipi-flash

EPAIMAHAIKOAK

BAZTAN

- AIZPURUA JAIMERENA M^a Asun
- ALTZUARTE ASTIZ Martin
- ARIZALETA ETXENIKE Andres
- ARRETXEIA ETXEBERRIA Micaela
- AZKARATE ETXARTE Fco.
- BARDOT LAURNAGARAI Miguel
- BIDEGAIN MEZKIRIZ Florencio
- BIKONDOA ITURRALDE Martina
- DOLAGARAI LARREGI Mariana
- ETXENIKE ARRILURIA M^a Josefa
- ETXEBERRIA SEIN Manuel
- ELIZONDO IRIBARREN M^a Jesus
- FAGOAGA ITURRALDE M^a Paz
- GARAIOET. ITURRALDE M^a Jos
- GONZALEZ IRIBARREN Begoña
- GORTARI UGARTE Juan
- INBULUZKETA LUKIN Javier
- IRIBARREN DIARASARRI Sebastia
- IRISARRI MARTIKORENA Izaskun
- ITURRIRIA ETXENIKE Gregorio
- JUANIKOT. IRIBARREN Sotera
- LAZARO ETXAMENDI Concepci
- MARISCO ETXEBERTZ Jose M^a
- MENDIBURU CORDOBA Javier
- MITXEO IRIARTE Luis Maria
- OHARRIZ ETXENIKE Manuel
- OTEIZA ETXEBERRIA Juan Miguel
- PLAZA ZUGARRAMURDI Asun
- SAITUA BARRUETABEÑA Agust
- SARRATEA ELIZAINZIN Maria
- TRANTXE ORGANBIDE Olga
- URRUTIA SANZBERRO M^a Jose
- ZENBORAIN HUARTE Damaso
- ZUFIA HERNANDO Pilar



ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



DANBORIENA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

ARLA

ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Sara

Olhalde auzoko Santa Katalina kapera berriro idekiko da

Hogeitabortz urtez hertsirik izan ondoren, azaroaren 26an zabalduko ditu ateak XVII. mendeko kaperak

MIXEL ETA JACQUELINE

Santa Katalina 17. mendekoa da eta aintzek ez badakite ere Olhalde auzokoa da. Kaperaren izena hedatu da eta orain jende gehienak Olhalde auzoa Santa Katalina deitzen du. Baina usadio hunen zuzentzeko beharrezkoa litaik egiatzko izena idatzirik ezartzea bertze auzoena bezala. Agian ez da ohar hau erantzunik gabe egonen.

Hontaz aparte, aipa dezagun kapera berri-tuaren idekitzea azaroaren 26an, 10 et'erdietan eginen dela. 25 urtez hertsirik egon ondoan bikario jeneralak benedikatuko du eta Sara eta Senpereko kantariak hor izanen dira. Gastuak herriak eta parrokiak bere gain hartu ditu eta lan gehientsuenak Sarako ofizialek beraiek eginak dira. Mezperan, ohi den bezala, tripotx jatea izanen da Bara-xtarte jatetxean.



Gaita erakaslea ikasleekin batera 1994ko Sarako bestetan

Gaita klaseak antolatu ditu Zazpiak Bat elkarteak

Zazpiak Bat elkarteak jakinarazten du gaita klaseak larunbat arratsaldetan 2etarik goiti iragaiten direla Gaztetxean eta erakaslea Daniel Crouspeyre dela. Elkarteak deia luzatu die gaita maite duten guziei herritan edo auzo herritan izanik ere. Ikasleak jin ditaizke Azkaine, Senpere,

Ainhua, baita Bera, Ur-dazubi, Zugarramurdi eta Etxalartik ere. Kopuruaren arabera elkarteak ordu horien ordaintzen segi lezake. Hau dugu parada ona eta denborarik galdu gabe zure izena emozu Jean Michel Jauregi jaunari zenbaki huntarat deituz arratseko 7etarik goiti: 5952573.

Euskal Herriko Egin mus txapelketa Saran ere

Euskal Herria osoan Egin gazetaren alde jokutzen den seigarren mus txapelketa huntan Sarak lehen aldikotz herrietako kanporaketetan parte hartu zuen. Beraz, urriaren 27an Herriko Etxeko edantegian hogeikotek jokatu zuten eta azkenean hiruk jarraituko dute herri-

Beka berezia

Urriaren 13an herriko kontseiluak erabaki du 500 liberetako dirulaguntza baten eskaintzea ikasketak jarraitzen dituzteneri. Baldintza batzu bete behar dira laguntza horien ukaiteko. Alde batetik, goi mailako ikasketazko lehen urtean izan eta bertzetik, burasoek ez dute irabazien gainean zergarik pagatu behar. Galdea egiteko Herriko Etxerat gan behar da lehenbaitlehen.

aldetako txapelketan.

Hiru bikoteak dira: Lehenak, Mixel Pradere eta Peio Etxebeste; bigarrenak, Manex Bergara eta Antton Bidegain eta hirugarrenak Jean Michel Ugarte eta Marc Berger izan ziren.

Ezagun da musazkar dabilela gure herrian.

ttipi-ttapa
Ameriketara
bidaltzea
erdi
prezioan
gure
bitartez

Frankeo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezker, zuk bidalita baino erdi prezioa kostako zaizu.

Interesatua bazaude, deitu

*Iparraldetik deitzeko 19-34-48-631188
Hegoaldetik deitzeko 948-631188 ra*

Urdaizubi

Leorlas, Landibar eta Alkerdiko borts etxe filmatu ditu ETBk

Hasiak dira, bertzalde, Dantxarineako zubiko lanak

ALIZIA OLAIZOLA

Orain dela gutxi ETBkoak izan ditugu herrian lehengo aspaldiko etxe batzuk filmatzeko. Borts etxe izan dira hautatu eta filmatu dituztenak: Mitxelena, Indianobaita, Karakoetxea, Aroztegia eta Mattoenea. Arras ederrak iduritu omen zitzaizkien harri haundi eta ederrak dituztelako. Joan den urtean ere izan ziren ETBkoak herriko irudiak hartzen. Orduan eliza, monastegia eta inguru filmatu. Monastegiko historia kontatu zuten.

Aurtengo hirugarren heriotza Matxi-neko M^o Cruz Elorga Gurrutxaga, azaroaren 5ean hil zen 74 urte.



Euskal Telebistak filmatutako etxeetatik bat izan da Aroztegia, Landibar auzoan dagoena, 1805ean egina.

Dantxarineako zubiko lanak hasi dira

Nafarroako Gobernuak eta frantses agintariak Dantxarinean egin behar den zubia-
ren aurrekontua onartu dute. Lanaren kos-

tua erdibana egingen dute, 25.500.000 pezeta Nafarroako Gobernuak eta kopuru hori liberetan, hau da, 1.020.000 libera Fran-

tziako agintariak.

Lanak irauten duten bitartean semaforoa paratu dute bi aldetan, ibilgailuen trafikoa erregulatzeko.



EPAIMAHAIKOAK

URDAZUBI

BENGOETXEA LASTIRI Ana M^o

OTERO MEL Manuela

ZUGARRAMURDI

MENTABERRI ETXEBER, Esteban

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

■ **Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ **Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ **Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ **Inmobiliaria**

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ **Gestoria**

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 530804 - ELIZONDO



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun
21.000 irakurle



Esker Onak
Urtemugak
Eskelak

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu

ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

© 63 11 88

EZKONTZAK


Ignacio Jose Perez Olguera eta **M^a Eugenia Otermin Huarte**, Pasai Antxo eta Leitzakoa, urriaren 12an.
Jacinto Leonet Mitxelena eta **M^a Soledad Etxegia Perurena**, Oiartzun eta Goizuetakoa, urriaren 28an.
Juan Jesus Gaztelumendi Miguel-torena eta **M^a Teresa Jorajuria Martinez**, Sunbilla eta Doneztebekoa, irailaren 23an.
Ildefonso Gerendiain Goñi eta **María Sarratea Arregi**, Lizaso eta Doneztebekoa, urriaren 21ean.
Juan Mari Maizterrena Ugalde eta **M^a Angeles Larregi Etulain**, Amaiur eta Arizkungoa, urriaren 28an.
Ramon Urrutia Argarate eta **M^a Emilia Azkarraga Iribarren**, Azpilkuetakoak, azaroaren 4an.
Jose Ignacio Mitxelena Lizardi eta **M^a Mercedes Mitxelena Mitxelena**, Bera eta Lesakakoa, azaroaren 4ean.
Juan M^a Iparagirre Iparagirre eta **Ana Isabel Iriarte Retegi**, Etxalar eta Berakoa, urriaren 7an.
Juan Carlos Huartemendia Sanjurjo eta **M^a Cristina Eltzaurdia Txantre**, Berakoak, urriaren 21ean.
Ibon Anabitarte Francisco eta **Zuriñe Ugartemendia Irazoki**, Donostia eta Berakoa, urriaren 18an.
Frantzisko Mari Larralde eta **Mari Karmen Ibarra**, Bera eta Etxalarkoa, azaroaren 4ean.
Mikel Etxalar eta **Idoia Zugarramurdi**, Iruñea eta Sunbillakoa, urriaren 14an.

JAIOTZAK

Jonatan Rubia Anton, Leitzakoa, urriaren 27an.
Martxel Calonge Azpiroz, Leitzakoa, urriaren 27an.
Itsaso Arretxea Goñi, Elizondokoa, urriaren 21ean.
Jaime Zalba Larrui, Elizondokoa, urriaren 30ean.
Unai Apezetxe Santxotena, Erratzukoa, azaroaren 2an.
Peio Etchevirigaray, Sarakoa, urriaren 21ean.
Karine Lafarie, Sarakoa, urriaren 26an.
Jeremy Etcheverry, Sarakoa, urriaren 31n.

HERIOTZAK

Maria Lizarraga Alkoz, Leitzakoa, urriaren 31n, 86 urte.
Anunciacion Huarte Ojer, Elizondon, urriaren 25ean, 75 urte.
Delia Urrea Avin, Elizondon, urriaren 30ean, 70 urte.
Aurea Osuna Fanjul, Etxalarren, azaroaren 5ean, 88 urte.
M^a Cruz Elorga Gurrutxaga, Urdazubikoa, azaroaren 5ean, 74 urte.
Jasone Uitzu Lujanbio, Goizuetakoa, azaroaren 9an, 24 urte.




publyservicios

PUBLIZITATE ERREKLAMO saila

Telefonoa: 908 - 67 27 09 • IRUN

giltzariak, karterak,
termometroak,
metxeroak,
boligrafoak, etab.



Andres MIGUEZ LIÑEIRA

Juanjo MIGUEZ
lankidearen aita

Zure oroitzapenak gure
artean dirau

TTIPI-TTAPAKO lankideak
Beran, 1995eko azaroak 9

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak.....	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea....	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitalea.....	460299
Erresidentzia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	450475
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Ornoz-Mugairi.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzarari.....	515018
Aberiak:	
Iberduero.....	450335 / 450336



EA Eguna ospatu zen urriko azken igandean Beran. Hiru mila inguru jarraitzaile bildu ziren Polikiroldegian. Ekitaldiak eguerdi 2etan hasi ziren bazkari batekin, eta arratsalde apalean Pello Irujo, Txomin Peillen, Inaxio Oliveri eta Carlos Garaikoetxeak hitzegin zuten.

Nafarroako Gobernuak 4.000.000 pezetako multa jarri nahi die 5 igel harrapatzeagatik Leurtzako urtegietan

Gertaera Leurtzatik Urrotzerako bidean, gauez, Polizia Foral-lak Olabeko Javier Boria, bere emaztea eta Salvador Inda koinatua (almandoztarrak) heldu ziren autoa geldiarazi zuenean hasi zen. Autoa miazterakoan, Poliziekin uretako bota pare batzuk bustiak, hiru xira, hauek ere bustiak, bi eskuargi eta hiru plastikozko zaku zeudela ikusi zuten. Geroxeago, autoak aldegin zuenean Polizietako batek bidean handik hur-



bil eta boltsa baten barrenean harrapatu zituen bortz igelak. Poliziekin diotenez, autoa pasatu baino lehen han ez zegoen deus, eta horregatik, boltsa autokoek botako zutela leihotik pentsatzen dute. Arrasto hauek ez dutela zalan-tza-biderik ematen eta, salaketarekin aitzinera egitea erabaki du Gobernuak. Salatuekin ordea, eurei ez dietela deusekin harrapatu eta, multa jarri nahia zentzuzgabea dela diote.

Erratzun hatzemandako ziloa, azkenean ez zen 'zuloa'

Domine Saindu bezperetan, Erratzuko kanposantu ondoko gaztandi batean 'zulo' bat hatzeman zutela zioen zurrumurrua zabaldu zen ahoz-ahoa eta baita zenbait komunikabideetan ere. Izan ere, gaztandian ziloa izan bazegoen, bainan ez hasiera batean susmatzen zen 'zuloa'. Berehala jakinenez, aipatu ziloa Nafarroako Gobernu-ko mendizainek egina zen lurraren analisisa egiteko muestra gisa.

Gripearen kontrako kanpaina

Azaroaren 30ean bukatuko da aurtengoz gripearen kontrako txertaketa kanpaina. Txerto hauek Osasun Zentru eta kontsultetan jartzen dituzte eta patologiaren bat duten haurrentzat, 65 urtetik gorakoentzat eta jendeaurrean lan egin behar duten profesionalentzat dohainik ematen dira.




HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORNOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxes: 592179



Limpezas ANIZ

JUAN ARRAZTOA ZUBIRI

Panteoiak garbitzen ditugu

Baita zolak, etxe aintzinaldeak, harriak, ladrilloak, denetarik

Iruregaina Industrialdea, 61 nabea AIZOAIN
© 303342 - 580185 - 276923

Goiko postuetan bukatzeko helburuarekin ari da Baztan futbol taldea Hirugarren mailan

Liga hasiera pattal xamarra egin badute ere, ikuslegoaren laguntzarekin postuak igotzeko aukera dutela uste du Javier Amiano entrenatzaileak

Baztan futbol taldea da eskualdekoen artean maila gorenean jokatzen duena, Hirugarren mailako XV. taldean, hain zuzen ere, Nafarroa eta Errioxako taldeekin batera. Hirugarren urtea du kategorian honetan, 1992-93 denboraldian igo zenetik eta aitzineko bietan arazorik gabe mantentzea lortu du. Aurten ez dute liga hasiera txukuna egin. Hau idazterakoan 14. postuan daude 20 talderen artean, 12 partidu jokatuetatik, 3 irabaziak, 3 berdinduak eta 6 galduak dutelarik. 11 gol sartu eta 16 jaso dute.

Bere taldea definitzerakoan, "indarra baino teknika gehiago duen taldea" dela uste du Javier Amiano 42 urteko entrenatzaile elizondoarrak. Entrena-



Baztan futbol taldea hirugarren urtez ari da Hirugarren mailan

Argazkia: Zaldua

tzeko arazo dexente ditzute, ordea, eta "fisiokoki ongi ez bazaude, teknikak ez du balio" Amianoren erranetan.

IKUSLEGOAREN LAGUNTZA

Hasiera kaxkar honen, dagoeneko eragi-

na izan omen du jokalarien moralean. Jendearen laguntza inoiz baino gehiago behar dela dio entrenatzaileak: "Galtzen hasi eta zenbait partidu, ikuslegoaren bultzadarekin altxatzen dira".

Baztan elkartearen urteko aurrekontua 11.449.197 pezetakoa da, Rafa Olaizola gerentearen erranetan. "Gasturik haundiena 3. mailako futbol taldeak du, noski, 3.695.000 pezeta. Ju-

benilak 490.000 pezeta, infantilak 310.000, mutilen rugby taldeak 875.000 eta nesken rugby taldeak 385.000 pezetako aurrekontua dute. Gainerakoa bertzelako gastuetan joaten zaigu".

«Egitan nahi izanez gero goitien egoteko moduko taldea daukagu»

■ **Zein helburuekin hasi duzue denboraldia eta zein neurritan betetzen ari da?**

□ Ahalik eta goitien bukatzeko helburuarekin hasi ginen, baina hasi garen moduan hasita, ez dakit... Gauzak ez zaizkigu ateratzen. Batzutan suerte txarra, baina suertea bilatu egin behar da, zenbaitzutan arbitroak eta bertzeetan, geronek huts egin dugu.

■ **Zer beharko li-**



Javier AMIANO
Entrenatzaileak

tzateke egoera hau gaintzeko?

□ Alde batetik, ez

dugu entrenatu behar den guztia entrenatzen, lana edo ikasketak dirrela eta... Bertzalde, afizioa ere bertze urteetan baino guttiago agertzen da Giltxaurdira eta ez du behar adina laguntzen. Bertze lekuetan baino hotzagoa da.

■ **Zein nota jarriko zenioke taldeak egindako lanari?**

□ Aprobatur, 5 bat. Nere ustez goiti joaten ahal gara, baina arazoa egitan nahi izatea da.

Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
Felipe Lasa	Atezaina	21
Guillermo Santos	Atezaina	23
Juan Jose Mitxelena	Atzelaria	22
Aitor Azkarate	Atzelaria	19
Mikel Ballarena	Atzelaria	19
Juan Jose Iturzaeta	Atzelaria	24
Xabier Iparagirre	Atzelaria	22
Jose M ^a Garaikoetxea	Atzelaria	27
Alberto Barberena	Atzelaria	17
Fermin Iriberry	Atzelaria	25
Aitor Jaen	Atzelaria	17
Agustin Mitxelena	Erdilaria	19
Eduardo Urtxegi	Erdilaria	19
'Kani' Galarregi	Erdilaria	24
Unai Meoki	Erdilaria	22
Pello Apezetxea	Erdilaria	27
Fernando Anbustegi	Erdilaria	17
Haritz Gaztelu	Erdilaria	17
'Dani' Arraztoa	Erdilaria	27
Daniel Etxeberria	Aurrelaria	19
Jose Luis Altzugarai	Aurrelaria	28
Patxi Apezetxea	Aurrelaria	22

Joxeantonio Loiarre zubietarra nagusitu zen 2. mailako aizkolari txapelketaren finalean

Leitzan bertan egin zen bigarren mailako arpanlari txapelketan, Etxauri Haranakoak gailendu ziren arraioztarren aitzinetik

Joxeantonio Loiarre, 34 urteko zubietarra aisa nagusitu zen urriaren 29an Leitzako Amazabal pilotalekuan burutu zen Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketan.

Zubietarrak 16' eta 49"tan moztu zituen Patxi Larretxeak plazaratutako zortzi pago enborrak. Bigarren postuan sailkatu zen Manuel Gorritik baino 1' eta 16" guttiago behar izan zituen lana akitzeko. Manuel Kañamares, Jaime Gorriti eta Aitor Senosiainek osatu zuten finalera ailegatu zen boskotea.

Finala bukatzerakoan, Loiarrek adierazi zuenez, "ez dut prestatzeko denbora askorik izan, garraioa lanetan ari bainaiz". "Orain arte -gaineratu zuen zubietarrak- Nafarroako

Herriz Herrikoan aritu naiz eta horko lana laburra da". Datorren denboraldian 1. mailan arituko da txapelduna.

ARRAIOZTARRAK BIGARRENAK ARPANEAN

Arpaneau lau bikote aritu ziren 105 zm.ko enborrari 5 korte etzanda, 4 zutik eta bertze 5 etzanda lehenbailehen eman nahiean. Lehen ebakialdian berdintasun handia izan bazen ere, bukaera aldera postuak finkatuz joan ziren. Atzenean, Etxauri Haranako Jokin Arrondo eta Eduardo Goikoetxea izan ziren txapeldunak 7' eta 29"ko denborarekin. Arraiozko Rafael Untxalo eta Josetxo Telletxeak bigarren postua eskuratu zuten 8' eta 27"rekin. Ondoren Lakuntza eta Ultzama-koak sailkatu ziren.



Joxeantonio Loiarrek lan bikaina egin zuen Leitzan eta ez zuen arazorik izan 2. mailako txapela janzteko
Argazkia: Egin

Bote pronton

Bortziritako futbol derbya

Azaroaren 26an, arratsaldeko 3,30etan jokatuko da Lesakako Kristo-Enea futbol zelaian Beti Gazte eta Gure Txokoa Bortziritako futbol talde nagusien arteko lehen norgehiagoka. Liga hasiera txukuna egin dute bi taldeek eta aitzineko postuetan aurkitzen dira. Beti Gaztekoek ez dute puntu bakar bat ere galdu aurten etxean eta beraien nagusitasuna mantendu nahiko dute. Gure Txokoa, berriz, azken urteetan baino hobekiago moldatzen ari da Beratik kanpora.

Jesus Mari Calvo lesakarrak irabazi zuen Lizuniagako Igoeraren 15. edizioa

Jesus M^a Calvo lesakarrak irabazi zuen urriaren 29an burututako Lizuniagako igoeraren XV. edizioa. Laisterkalari lesakarrak 16'57" behar izan zituen, bigarren sailkatu zen Antonio Bru beratarak baino 16 segundu guttiago.

Guztira 57 lagunek parte hartu zuten Gure Txokoa elkarteak antolatutako proban. Aspaldiko partez, irabazlea 17 minututik behitu ibili bazen ere, oraindik urruti geldi-

tzen da Peio Garinen errekorra.

Emakumeen artean, Maika Ariztegi iturndarrak ez zuen kontrarioz izan eta 20' eta 18"ko denborarekin irabazi zuen. Bigarrena Xole Garmendia beratarra izan zen.

Junior mailan Javier Arozena irundarra izan zen lehena, Jorge Orbeagoz doneztebarraren aitzinetik.

Beteranoen artean irundarrak gailendu ziren. Angel M^a Aizpiolea izan zen lehena, Fe-

lipe Carreñori aurrea hartuz.

Sailkapenak

Senior

1. Jesus M^a Calvo.....16'57"
2. Antonio Bru.....17'13"
3. Jose M^a Arozena.....17'35"
4. Aingeru Mindegia..17'40"

Junior

1. Javier Arozena.....18'18"
2. Jorge Orbeagoz18'34"
3. Borja Hidalgo18'56"

Emakumeak

1. Maika Ariztegi.....20'18"
2. Xole Garmendia.....26'32"

Beteranoak

1. Angel M^a Aizpiolea18'01"
2. Felipe Carreño.....19'45"
3. Ricardo Toro.....19'58"

Hamabostaldiko Jokaldiak



Joxeantonio Loiarre Zubietako aizkolaria.

Prestatzeko asti handirik izan ez badu ere bigarren mailako Nafarroako aizkolarien txapela bururatu du zubietarrak. Datorren urtean 1. mailan aritu beharko du. Ea entzetzeko denbora nonbaitetik ateratzen duen.

Retegi-Errandona lau t'erdiko txapelketan.

Gaizki ohituak egonen gara, akaso, baina araroa egiten zaigu eskualdeko pilotaririk final batean ez ikustea. Nagore izan zen bien berreroa, final laurdenetan Retegi kanporatuz eta finalerdian Errandona.

AGENDA EGUNEZ EGUN

IHARDUNALDIAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 18, 25 eta abenduaren 2an.** 'Euskararen bizitasuna Baztanen' izeneko I. Ihardunaldiak Arizkunenea Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

DONEZTEBE

► **Azaroaren 17an** Arratseko 8etan Amaia Zubiria Bordaxon.

IGANTZI

► **Azaroaren 18an** Gaueko 10,30etan 'Larrua Truk', 'Nahitanahiez' eta 'Ehun Kilo'k joko dute Eskolako atean.
► **Azaroaren 25ean** Gaueko 9etan Landarbaso Abesbatzaren kontzertua elizan.

ELIZONDO

► **Azaroaren 19an** arratseko 8etan Kasinoan, 'Geer tha Rigge' Eskoziako taldea, 'Folk ametsetan' zikloaren barnean.

LEITZA

► **Azaroaren 24an** Gaueko 10,30etan zineman 'Zazpi Eskale' kontzertuan.

FERIAK

DONEZTEBE

► **Azaroaren 17an** Ikus gehigarria.

LESAKA

► **Azaroaren 23an** Ikus xehetasunak 10. orrialdean.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Espinaka Krema

Osagaiak 4 lagunendako

• Kilo 1 espinaka • olio eta gazta pixko bat • gazta birrindua

Bechamela egiteko:

• 200 gr. irin • Litro 1 esne

Prestatzeko manera
Espinakak ongi garbitu ondoren

ontzi batean egosten jarri, ura, gazta eta olio gordin pixko batekin. Egosten hamar minutu pasa ondoren, aterra eta ur freskoan jarri, berehala hozteko. Gero, ur guztia ongi kendu. Taula baten gainean espinakak xehe-xehe egin eta utzi. Bitartean bechamela egiten du. Egina dagoenean, espinakak erantsi eta ongi nahasi.



M^o Dolores
ETXEBERRIA
Kaitu
Jatetxekoa
•LESAKA•

Labeko ontzi batean paratu nahaski dena, gazta birrindua gainetik bota eta labeko "grill"ean borts minutu eduki. Bero-beroa zerbitzatu. On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoak); 6.300 pzta.
• **Zerri gizona** (95-100); 166 pzta/kilo
• **Zerramak**: 115-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 560
1.koa 540
2.koa 520

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal
Extra 570
1.koa 550
2.koa 520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruyak 20.000 eta idixkoak 28.000 Pzta.
Mestizoak: urruyak 32.000 eta idixkoak 45.000 Pzta.
Behi zaharrak: Behi nabar gizona: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• **Bertako sagarrondoa** 950.
• **Udareondoa** 950 pzta.
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.
• **Aranondoa** 1.050 pzta.
• **Muxika** 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

• **Porruak** zientoa 300.
• **Pipertxorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.



© 948-451771



© 635290
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA


Jatetxea

Lagun artean
gora-gora egoteko
leku egokia

Produktu miragarriak

Publizitateari esker gero eta gehiago dira dendetan, kalean eta etxean aurkitzen ditugun ustezko produktu miragarriak; hauek dira edozein gaitza sendatzen duten pastillak, eskumuturrekoak, koltxoak, burukoak, etabar...

Hainbertze mirarik susmo txarrak sortarazten badigute ere, sendatzeko azken aukera direlakoan, aunitz pentsatu gabe erosten ditugu. Hori maiz gertatzen dela eta, erabilera horrek osasun eta diru arazoak sor ditzakeela gogoan izan behar dugu. Hori kontutan hartuta, medikamentuen eta "produktu miragarrien" artean dexenteko aldea dagoela erranez hasiko gara, garrantia bakarria medikamentuek gairitu behar dituzten azterketak direlarik. Medikamentuek "Farmazia eta Sanital Gaien Zuzendaritza Nagusiak" ematen duen "Medikamentuen Kodea" kutxan eramaten dute eta publizitatea egiterakoan, "C.P.S." (Control Previo Sanitario) hizkiak jartzen dituzte, bertan aipatzen dutena frogatuta da-



'Produktu miragarrien' publizitatean zientifikoki frogatu ez diren osasun propietateak aipatzen dira.

goela jakinaraziz. "Produktu miragarrien" bereiztasunak, ordea, ez daude frogatuak eta nahiz eta legeak debekatu, frogatu ez diren osasun propietateak aipatzen dira beraietan. Ezbeharren bat ez izateko hobe dugu aholku batzuk kontutan izatea:

1.- Ez fidatu mirarietaz.

Egiazko medikamentuen publizitatean, bertan aipatzen dena frogatuta dagoela jakinaraziz "C.P.S." (Control Previo Sanitario) hizkiak paratzen dituzte

- 2.- Medikamentoek eta janariak ezin dira etxez etxe saldu, baimena behar dute.
- 3.- Gaixotasun bat izanda, produktu miragarrien erabilpenarekin denbora alferrik galdu dezakegu.
- 4.- Farmazietan saltzearekin ez dugu inolako garrantiarik.
- 5.- Publizitatearekin batera gezur asko esaten dira.
- 6.- Erositako produktuaren erabilpenaren ondorioz zerbait txarra sumatzen badugu medikuarengana joan eta salatu.
- 7.- Publizitatean eman den hitza ez betetzeagatik salatu ditzakegu, diru hori berreskuratzeko eskubidea dugularik.

MIKEL BEZUNARTEA
IRATXEKOA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

▷ **Azaroaren 16tik 26ra** Arizkunenean 'Euskara, betiko mintzoa' erakusketa arratsaldeko 7etatik 9etara. Bisitaldi kolektibok (Eskolak, ...) goizez ere posible izanen dute aitzinetik ordua eskatuz gero; 580006 Paula.

ZINEA

BERA

▷ **Azaroaren 19an** arratsaldeko 5,30etan Kultur Etxean, 'Hurson y los argonautas'.

▷ **Azaroaren 26an** arratsaldeko 5,30etan Kultur Etxean, 'El triunfo de Tarzán'.

DONEZTEBE

▷ **Azaroaren 18-19an** Doneztebeko zine aretoan 'Jeronimo'.

▷ **Azaroaren 25-26an** Doneztebeko zine aretoan 'El libro de la selva'

GUARDIAKO BOTIKAK

▷ **Azaroaren 13tik 19ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

▷ **Azaroaren 20tik 26ra** Bera, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

▷ **Azaroaren 27tik abenduaren 3ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

LESAKA. Pisua erosiko nuke. ☎ 637940.

BERA. Agerra auzoan bi lagun behar ditut pisu bat osatzeko. ☎ 630557 (Ramon).

SUNBILLA. Pisua alokairuan jarriko nuke. Leku Eder, 5. ☎ 450369.

LESAKA. Bajera bat alokairuan jarriko nuke Albistur karrikan, lur azpian. ☎ 637948.

URNIETA. 8.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 510431.

DENETARIK

Esnea hozteko tankea (300, 500 edo 1.000 litrokoa) erosiko nuke. ☎ 581021.

Sukalde ekonomikoa kafe-faktora salgai, Lakuntza markakoa eta kolore beltzekoa. Merke. ☎ 510568 (eguerdiko 2etatik 4etara eta gauzez deitu).

Erloju bat aurkitu da lgantziko bestetan. Orain TTUPI-TTAPAKO bulegoan da-

go. ☎ 631188.

Ezti naturala, etxean egina, salgai. ☎ 397001 (Saldias).'

Kartelak, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.



Maderas Zabala, S. of.

Su-egurra eta egur azalak salgai, moztuak eta prezio onean. Haritza eta pagoa. Dagoena akitu arte.

☎ 45 01 35 • DONEZTEBE

Jangelako mogleak salgai. Egurrezkoak dira, zaharrak. Mahai bat, 6 aulki eta bi besaulki. Interesatua egonez gero, deitu eguerditan. ☎ 630685. Maria.

Gitarra elektrikoa, Academy markakoa, salgai. ☎ 630003. Iker.

Akordeioa salgai, Borsini

markakoa eta 'Concierto medio' modelokoa. Kromatikoa eta baju solteekin, bere estutxe eta guzti. ☎ 630884 (Rosario).

LANA

23 urteko neska batek haurrak zaintzen edo etxeko lanetan lan eginen luke. Goizeko 8etatik 2etara. Esperientziaduna. ☎ 631348. Begoña.

IBILGAILUAK

Traileko motoa, Gilera Dakota 500 markakoa salgai. 13.000 km. ditu. ☎ 634158 (Agustin, gauzez).'

Peugeot 504 kotxea, N.A.M matrikuladuna eta gasoilekoa merke saltzen da. ☎ 631422 edo 450935 (iluntzetan).



Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Motoa salgai, Cota 304 markakoa, 140.000 pezetatan. ☎ 610686 (Leitza).

AZIENDAK

5 zakurkume emanen nituzke. Ama ihizturia dute eta aita ardi-zakurra. ☎ 450945. (Doneztebe).

Bi behi blonda arrazak beren aretzeekin eta arraza bereko bertze bi miga salgai. ☎ 599124.

Artzai zakurkumeak salgai. ☎ 504498.

Urtebeteko txerri bat salgai. ☎ 510277.

Hiru zakurkume salgai, aita eta ama ehiztariak. ☎ 510249.

Ehizarako **bi zakur** salgai, bat bi urtekoa eta hiru urtekoa bestea. ☎ 510249.

AGURRAK

Bigarren DBHko lban eta Xabi oso onak daude.

Berako Jaione Irizareri, azaroaren 12an urteak betetzen dituelako, Etxalarko lagunaren partez zorionak.

Orain **21.000** irakurlek eros dezakete zuk saltzen duzuna

ttipi-ttapa

...gure eskualdean tirada haundienekoa

SEKULAKOA

GURPILAK

5.950

pezetatik aitzinerat

paratzea eta berdintzea

BARNE



RENAULT

Berehalako harrera, aitzinetik ordua eskatu gabe auto marka eta modelo guzientzat



NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA
145/80/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.950	6.835	7.715	8.350	9.970

BEZa barne

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

TALLERES SANTESTEBAN

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

SEMPER HNOS., S.L.

Irun-Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**

Eskeintza baliagarria azaroaren 30a bitarte

Zure semeak behar duen instrumentu musikal hoberena aurki dezakezu finantzaketa hoberenarekin.

*Moeta guztietako instrumentuen erakusketa haundiena:
Teklatuak, saxofoiak, tronpetak, bateriak eta abar.*

Piano, akordeoi eta trikitixen importatzaile zuzenak gara. Lantegi prezioak.

Errekargurik gabeko finantziaketa 24 hilabete arte.



Erakusketako 1.400 m²

Musical Tomas
MEGADENDA

20 urte zure zerbitzuean

C/ Asunción, 4 y 6 • Tfnos. (948) 26 85 53 -75 • 17 07 11 • Fax. (948) 17 03 81 • IRUÑA

